

# Asisko gutuna

2010eko iraila. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

23. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

23. gutunean goaz dagoeneko eta ia 2 urte daramatzagu gure tokietan otoitzera bilduz, eta hori gero eta geografia zabalagoan. Ia 2.000 lagunek hartzen dute gutun hau, eta hileroko otoitzaldia Beasainen, Bilbon, Donostian... egiten da gure inguruko tokietan, eta horrez gain urrutikoetan ere bai: Madrilan, Santanderren, Valladoliden...

Hil honetako Asisko gutunak espiritualitate frantziskotarraren giltzetako bat aurkezten digu: solidaritatea. Hain korrika bizi garen mundu honetan, ez dugu asti luzerik inguruan dugunari erreparatzeko. Testu hauek lagunduko digute sosegua hartu eta geure inguruneaz gogoeta egiten.

## Gogoetarako gaia

### Solidaritatea gertukoekin

Solidaritateaz mintzo garenean, jeneralean azkenengoei, baztertuei, nazio pobreei eta bidegabekeria handiei begira jartzen gara. Eta sentitzen dugu hor, arazoa handiegia delako, ezer gutxi egin dezakegula, eta geure ahalegintxoia egiten badugu ere, konponbidea beste batzuen eskuetan dagoela.

Baina bizitza orokorki da nahiko gogorra, ez bakarrik azkenengoentzat, baita gutako edonorentzat ere. Oinaze eta sufrimendu asko dago hortxe kale iskinean edo geure etxean bertan. Liskarrak, sufrimendua, beldurra, larritasuna, bakardadea, norabiderik eza, zailtasunak, nahasmena ... oso gertu ditugu.

Eta ez dago gure esku horien erabateko konponbidea, nahiz eta beti egin dezakegun zerbait. Paradoxikoki askotan errazago solidarizatzen gara urrutikoa denarekin, urreratu eta albora begiratu baino. Askotan ez dugu hurbildu eta ikusi nahi hurbil ditugun sufrimendua, ezagunak direnen eta alderik onena eta txarra eragiten digutenen zailtasunak.

Era askotara aurkitzen dizkiogu aitzakiak geure joerari: egiten diegu juzgua besteiei eta juzku

horretatik haien sufrimendua ez dagokigu guri, edo erantzukizuna beraiena dateke. Besteetan nork nori zor dion neurtzen jartzen gara. Eta gerta daiteke besteen zailtasunek geureak arintzea ere.

Beste ikuspuntu bat zabaltzen digu Jesusi begiratzeak eta ikusteak nola, juzkurik gabe eta bihotza zabalik, hurbiltzen zitzaaien bidean aurkitzen zituen pertsonen, edo Frantziskorengana hurbiltzeak eta ikusteak nola tratatzen zituen anaiak, nola entzuten zien eta laguntzen.

Begirada honetatik ulertzekoa dugu, aldendu egin behar dugula aurreiritzitik, bekaizkeriatik, arduragabekeria eta beldurretik. Bihotz apala behar dugu besteen sufrimendura juzkurik gabe hurbiltzeko, alboan ditugun eta gogaikarri egiten zaizkigun zailtasunak geure esku hartzeko. Adi egon behar dugu egunez egun geureenganako errukiari denbora eta tokia emateko. Baina askotan geure harrizko bihotzarekin egiten dugu topo. Hor hartzen du esanahi osoa, bihotza alda diezagula Jainkoari eskatzeak.

## Ebanjelioko pasartea: Jn 3, 16-20

Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengana sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan. Zeren Jainkoak ez baitzuen Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, haren bitartez salbatzeko baizik. Harengana sinesten duena ez da kondenatua; sinesten ez duena, ordea, kondenatua dago

jadanik, ez baitu sinetsi Jainkoaren Seme bakarrarengana. Hauxe da kondenaren arrazoa: argia mundura etorria dela eta gizakiak ilunpea maiteago izan duela argia baino, beraren jokabidea gaiztoa delako. Izan ere, gaizki jokatzen duenak gorroto dio argiari, eta ez da hurbiltzen argitara, beraren jokabidea agerian geldi ez dadin.

## Frantziskotar pasartea

(Jesusen atzetik) joan, irten, bideari ekin, gizatasun- eta senidetasun- zerumugen bila bidez bide ibili, alde guztietara eta denei ebanjelioa eraman, horiek izan ziren anai Frantziskoren aditzak eta bokazioa. Eta hori bera da frantziskotar izatearen bokazioa. Baina urrutira joate horrek "Jainkoak inspiraturik" izan behar du, ez beste ezergatik (Ik 2 Er 12,1). Horrela "urrutiko intxaurren mitoan" eror ez gaitezten.

Horregatik, urrutira joatearen kontrapuntu eta egia-irizpide gisa, Frantziskok "gelditu eta zaindu" aditzak gogoratzen dizkigu. Anaiaren bat gaixo eror baledi, beste anaiek ez bezate bertan behera utz; baizik zaindu bezate, beraiek zainduak izatea nahiko luketen bezalaxe (Ik 1 Er 10,1).

Irten eta sartu, urrutira joan eta bertan gelditu, bila ibili eta zaindu, eguneroko gauza zehatz eta hurbilekoak duten utopia, urrutian amestutako anaia eta gertutik zaintzen dena ... horiekin guztiekin egoki jokatzuz bihurtzen da egia zehatz Jesusen ebanjelioa, frantziskotar bizimoduaren arabera.

## 30, 2-6 Salmotik

Jauna, zuregan dut babes:  
ez dakidala inoiz neure ustea huts gerta!  
Zuzena baitzara, atera nazazu onik.

Entzun, arren, niri! Libra nazazu, ez luza!  
Izan zakizkit harkaitz babesle, gaztelu salbatzaile.

Zu zara, izan ere, nire haitz eta gotorleku.  
Eraman nazazu eta gidatu, zarena zarelako.

Atera nazazu jarri didaten tranpatik,  
zu baitzaitut gotorleku.

Zure eskuetan jartzen dut bizia:  
aska nazazu, Jauna, Jainko leiala!

## Gutuneko azken hitzak

Bizitza ez da betea, solidaritatean doakotasunaren esperientziarik egiten ez bada.

## 2010eko urriko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urriko erreferentzia guztiak:

1 Lk 10, 13-16	8 Lk 11, 15-26	15 Lk 12, 1-7	22 Lk 12, 54-59	29 Lk 14, 1-16
2 Lk 10, 17-24	9 Lk 11, 27-28	16 Lk 12, 8-12	23 Lk 13, 1-9	30 Lk 14, 1. 7-11
3 Lk 17, 5-10	10 Lk 17, 11-19	17 Lk 18, 1-8	24 Lk 18, 9-14	31 Lk 19, 1-10
4 Lk 10, 25-37	11 Lk 11, 29-32	18 Lk 10, 1-9	25 Lk 13, 10-17	
5 Lk 10, 38-42	12 Lk 11, 37-41	19 Lk 12, 35-38	26 Lk 13, 18-21	
6 Lk 11, 1-4	13 Lk 11, 42-46	20 Lk 12, 39-48	27 Lk 13, 22-30	
7 Lk 11, 5-13	14 Lk 11, 47-54	21 Lk 12, 49-53	28 Lk 6, 12-19	

## Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2010ko iraila. 3. printzipioa: eguneroko bizitza:

kanporantz, elkartasuna

23. zenbakia

Geure oinaze eta sufrimenduaz jabetu eta horiek onartzen ez baditugu, gerta daiteke beroriek gogoratzen eta berriztatzen diguten guztitik inkontzienteki iheska ibiltzea. Agian horregatik ahazten zaigu hain erraz, solidaritatea hurbilen ditugunengandik hasten dela: familiarteko, adiskide, lankide, auzokoengandik ... Urrutiagokoak ahaztu gabe, hil honetako Asisko Gutunak gonbitea egiten digu kontziente izatera, hurbilekoetatik nor den nire premian, ni neu harengana joan, harekin egon eta hari laguntza eman zain.

### Hurbilekoekiko solidaritatea

Har ezazu une bat, hurbil dituzun pertsonengana zeure baitan hurbiltzeko: begira iezaiezu begietara, ikusi nola dauden. Agian ohartu gabe pasa zaizu haren tristura- edo neke-keinua, agian ez duzu ulertu haren laguntza-eskea, apika sotil eta lotsatia baina premiaduna.

Zeuk duzun alderik onenean jarrita, zer egitera sentitzen zara gonbidatua?

Apika ezin zara besteen sufrimendura hurbildu, zeurearekin zama handia daukazulako. Hurbil zaitez zeure sufrimendura, utz iezaiozu irteten, onar ezazu; bakarrik ezin baduzu, bila ezazu norbait eta partekatu berarekin.

### Hain maite izan zuen Jainkoak mundua...

Horrela: "Hain maite izan zuen Jainkoak mundua... ". Ia ez dugu jarraitu beharrik, gera gintezke esaldi horretan. Soilik maitasunak eragin zion Jainkoari guregana hurbiltzera, egunez egun eta unez une gugana, zuregana, itzulia egotera. Hori da Jainkoaren bihotza. Zer esnatzen du honek zeure baitan?

Hori bera egitera gonbidatuak gaude: dastatu dugun Jainkoaren argia barreiatzera, alegia. Ezin baduzu, zeure ingurukoren batekin zailtasunak badituzu, saia zaitez harengana Jainkoaren bihotzetik hurbiltzen. Nola begiratzen dio Jainkoak? Zer ez luke egingo haren alde?

### Atera eta gelditu

Eta hemen dator berriro Frantzisko beretarrekiko gertutasun txeratsuz ...

Frantziskok, Jainkoak guregana isuritako maitasunaz beterik, lur tinkoa zapaltzen laguntzen digu, geure errealitatetik ihes ez egiten: urrutikoekiko solidaritatea? Bai, noski. Baina geure solidaritatearen test egiazkoa, hura geure ingurukoekin egunez egun bizitzen daukagu, hura maite ditudanekin eta ondo datozkidanekin, eta gerturatzea zail egiten zaidanekin, partekatzen.

Honek guztiak jartzen du zerbait zalantzan zeure oraingo bizitzan? Zertan? Zertara sentitzen zara gonbidatua?

### Jauna, zuregan dut babes

Apika aspertuta zaude zeure burua hainbeste ematen, agian dena uzteko tentazioa ere senti dezakezu, "azken batean, eskertzen dizutenarengatik".

Eser zaitez lasai, jarri Jainkoaren aurrean eta har atsedean Harengan, zeure harkaitz babesle eta gaztelu salbatzaile den harengan.

Ez da beti erraza, hil honetan proposatzen dena bizitzea, sarritan ezinezkoa ere iruditu dakiguke ... Baina beti jo dezakezu Jainkoarengana: eraman nazazu eta gidatu. Atsedean hartzen eta itxaropen berrituz jarraitzen lagunduko dizu. Utz dezakezu haren eskuetan zeure bizitza, zeure zailtasunak, zeure lorpenak. Salmo honen bidez otoitz egin ondoren, sentitzen duzu zerbait mugitzen zaizula barruan?